



Bertaratuak:

**Carmela Muñoz Ventura and.**

Representante del profesorado de centros privados/lkastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

**Camino Bueno Zamarbide and.**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/lkastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Esther Monterrubio Ariznabarreta and.**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren Ordezkaria

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Representante del profesorado de centros privados/lkastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

**Lourdes Larunbe Arretxe and.**

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/lkastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra / Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularen ordezkaria/ANEG-FERE

**Amaia Zubieta Garciandia and.**

Representante del profesorado de centros públicos/lkastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

**Cristina Bayona Saez and.**

Representante de las Universidades / Univertsitateen ordezkaria UPNA

**Karmele Marañon Chasco and.**

Representante de las entidades locales / Toki entitateen ordezkaria

**Aurora Bernal Martínez de Soria and.**

Representante de las Universidades / Univertsitateen ordezkaria. Universidad de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

**Ernesto Delas Villanueva jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikarasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Representante de Directores y Directoras

Iruñean, 2017ko irailaren 27aren 17:10 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Antonio Iriarte Moncayola jn. Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Hezkuntza Kontseilariaren agurra Nafarroako Eskola Kontseiluaren ikasturtearen hasieran.
2. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena (atxikita doa).
3. Berri orokorrak.
4. 2017/2018 ikarturteko Lan Egitasmoa (erantsi egiten da).
5. Nafarroako Landa Eremuko Eskolaren txostena.
6. 2016/2017ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oroitidazkia (erantsi egiten da).
7. Aurrekontuen proposamena (erantsi egiten da).
8. 2016/2017 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren egoera.
9. Galde-eskeak.



de centros docentes privados  
concertados/ikastetxe pribatu itunduetako  
zuzendarien ordezkaria

**Juan Luis García Martín jn.**

Representante de las Federaciones de  
Asociaciones de Padres y  
Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen  
Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Eduardo Mayor García jn.**

Representantes de las Federaciones de  
Asociaciones de Padres y Madres/  
Ikasleen Gurasoen Elkarteen  
Federazioen ordezkaria CONCAPA

**Jorge Lanchas Rivero jn.**

Representante de las entidades titulares de  
centros privados de  
Navarra/Nafarroako Ikastetxe  
pribatuetako entitate titularren  
ordezkaria/ANEG-FERE

**Nekane Oroz Bretón and.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
Ordezkaria

**Roberto Pérez Elorza jn.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Ignacio Toni Echeverría jn.**

Representante de las Personas con  
discapacidad de Navarra/Nafarroan  
desgaitasuna duten pertsonen  
ordezkaria/ CORMIN

**Pedro María Baile Torrea**

Representantes de las Federaciones de  
Asociaciones de Padres y Madres/  
Ikasleen Gurasoen Elkarteen

**Alfredo Hoyuelos Planillo jn.**

Personalidad de reconocido prestigio /  
Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

Beren absentzia desenkusatzan dute:

**Mikel Fernández de Quincoces**

**Martínez de Birgala jn.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Ander Domblás García jn.**

Representante de la Administración



Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
Ordezkaría

**Sonia Cabrero del Amo and.**

Representante de las Asociaciones que  
trabajan por la igualdad/Berdintasunaren  
alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

**M<sup>a</sup> José Anaut Couso and.**

Representante de las organizaciones  
sindicales/Sindikatuuen ordezkaria/UGT

**Nora Salbotx Alegría and.**

Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria LAB

Ez dira bertaratu:

**Josu Repáraz Leiza jn.**

Representante de las entidades titulares  
de centros privados de Navarra-  
Federación de Ikastolas de  
Navarra/Nafarroako ikastetxe  
pribatuetako entitate titularren ordezkaria-  
Nafarroako Ikastolen Elkarte

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López and.**

Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria AFAPNA

**M<sup>a</sup> Luisa de Simón Caballero and.**

Representante del Parlamento de  
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (I-E)

**Francisco José Flores Pérez jn.**

Representante de las asociaciones  
Empresariales/Enpresari elkarteen  
ordezkaria

**Miren Aranoa Astigarraga and.**

Representante del Parlamento de  
Navarra/Nafarroako Parlamentuaren  
ordezkaria (EH BILDU)

**Santiago Álvarez Folgueras jn.**

Representante de las Federaciones de  
Asociaciones de Padres y  
Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen  
Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Javier Albizu Sanz jn.**

Representante de las entidades  
locales/Toki entitateen ordezkaria



## **1. Hezkuntza Kontseilariaren agurra Nafarroako Eskola Kontseiluaren ikasturtearen hasieran.**

Lehendakariak azaltzen du azken momentuko agenda arazoak direla eta Hezkuntza Kontseilaria ezin izan dela bilkurara bertaratu. Eskola Kontseiluko Idazkari berriaren izendapena jakinarazten du eta bertaraturako batzordekideei aurkeztu.

Ondoren, Hezkuntzako Zuzendari Orokorrari hitza ematen dio. Honek, bertaraturako kideei eskerrak ematen dizkie eta hasi berri den ikasturte honetarako desiorik onenak adierazten ditu.

## **2. Aurreko saioaren aktaren berrikuspena eta, badagokio, onespena.**

2017ko ekainaren 28an egindako Osoko bilkuraren aktari buruz norbaitek zeozer esateko edota objektatzeko daukan galdetzen du Lehendakariak.

Inork ez duenez ezer esaten, baieztapenez onartzen da, aipaturako zuzenketekin.

## **3. Informazio orokorrak.**

Lehendakariak, Nafarroako Eskola Kontseiluko Osoko bilkura-kide batzuen ordezkapenen berri ematen du, baita Batzorde iraunkorreko kideen aldaketen berri ere. Bestetik, Kontseiluan administrazio-lanak egin dituzten langileei orain arte egindako lana eskertu nahi die eta hauen ordezkoei ongi etorria eman.

Azkeneko Osoko Bilkuraren ondoren egindako bileraren eta ekintzen berri ematen die Lehendakariak bertaraturakoei.

Camino Buenok hartzen du hitza, hurrengo udaberriko jardunaldiek Bigarren Hezkuntzako esperientziak ere barne har ditzaten eskatzeko.



#### 4. 2017/2018 ikasturteko Lan Egitasmoa (proposamena erantsita).

Lan Egitasmoa osatzen duten lan lerro nagusiak aditzera ematen ditu Lehendakariak. Hala nola:

A) Hiru Irizpen-proiektu landu dira eta urrian aurkeztuko dira onetsiak izateko.

B) Arau Batzordeak, Kontseiluaren funtzionamendua eguneratuko duen araudi berria onestea egokia deritzo. Nafarroako Eskola Kontseiluaren osaketan egon daitezkeen aldaketei dagokionez, Osoko bilkurak adostu zuen ikasturte honetan zehar gai hau modu zehatzean lantzea.

C) Kontseiluaren Oroitidazkia eta Nafarroako hezkutza-sistemaren Txostena prestatuko dira adituekin elkarlanean, aurrekoetan bezala.

D) Kontseiluaren jardueren hedapenari dagokionez, Kontseiluaren web gunearen etengabeko egunerapenarekin jarraituko da. IDEA aldizkariaren eta monografiaren ale berriak argitaratuko dira.

E) Hezkuntza eremuko erakundeekin harremana bultzatzen jarraituko da. Kontseiluaren agerpen instituzionala gizartean indartzeko helburuarekin, Eskola Kontseilua gonbidatua izan den jardueretara bertaratuko da.

F) Estatuko Kontseiluari dagokionez, Ikasturte honetako Topaketan berririk ez dago.

G) Orain arte bezala, jasotzen diren eskaera guztiei erantzuna emango zaie.

Bestetik, Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardunaldien formatuaren diseinua Corellako Arte Eskolako ikasleek egin dutela jakinarazten da, eskolarekin dugun hitzarmenaren bitartez. Jardunaldi hauek 2017ko urriaren 23an eta 24an Tuteran izango dira eta azaroaren 8, 9 eta 10ean Iruñean. 8 hitzaldi osotara.



Amaia Zubietak hartzen du hitza. Hezkuntza eta espazioa jardunaldietako hitzaldien diseinua itxia egon arren, bestelako ideiak eta ekarpenak egiteko aukera egotea eskatzen du.

Lehendakariak erantzuten dio, gaia lantzeko lantalde irekia eratu dela, irizpide eta jatorri askotariko ekarpenak jasotzeko asmoz. Hortaz, Kontseilu kideen parte hartzea eskertuko luke.

#### **5. Nafarroako Landa Eremuko Eskolaren txostena.**

Lehendakariak adierazten du, txosten honen aurkezpena Osoko bilkuraren ekaineko saioan egiteko asmoa bazen ere, gai-zerrendatik kanpo geratu zen eta aurkezpena irailean egitea adostu zen. Hori dela eta, Osoko bilkura honen gai zerrendan azaltzen da. Txosten honen helburu nagusia, landa eremuko eskolaren egoeraren ebaluazio zehatza eta aurrera begira proposamenak jasotzea zen.

Bestalde, paperezko argitalpena inprimategian dagoela jakinarazten da, Nafarroako Eskola Kontseiluko Landa eremuko eskolari buruzko zikloari bukaera emanez.

#### **6. 2016/2017ko Nafarroako Eskola Kontseiluaren Oroitidazkia (erantsi egiten da).**

Lehendakariak jakinarazten du Kontseiluaren oroitidazkia egina dagoela.

#### **7. Aurrekontuen proposamena (erantsi egiten da).**

Lehendakariak azaltzen du aurrekontuen proposamena Batzorde iraunkorraren azkeneko saioan aurkeztu zela. Hezkuntza Departamentuaren ekarpen ekonomikoak barne, aurreko urteetako soberakinak bukatu direlako.



Horrez gain, bertaratutakoei oroitarazten zaie, Eskola Kontseiluaren egoitza eta langileei dagokien funtzionamendu gastuak Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzen dituela. Era berean, Eskola Kontseiluak egindako txostenak gaztelaniatik euskarara itzultzeko aurreikusitako gastua kontutan hartu da. “Euskarabidea” Euskararen Nafar Institutuak, Nafarroako hezkuntza-sistemaren Txostenaren itzulpenaren gastuak bere gain hartuko ditu baina Kontseiluko bestelako txostenak ordaintzeko dirurik ez du.

Aurrekontuen proposamena onesten da, aho batez.

#### **8. 2016/2017 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostenaren egoera.**

Lehendakariak azaltzen du Txostenaren I eta II kapituluak itxita daudela eta atal hauek osatzen dituzten datu guztiak jaso direla. III, IV eta V kapituluei dagokionez, egoera desberdina da eta datuen bilketarekin jarraitzen da.

Lehendakariak nabarmentzen du, datuak jasota eta atalak bukatu ahala batzordekideei helaraziko zaizkiela.

Txostena aztertu ondoren, Batzorde iraunkorraren hurrengo bilkuran aurkeztuko da.

#### **9. Galde-eskeak.**

Osoko bilkurako batzordekideek ez dute galde-eskerik aurkezten.

Eta beste gairik jorrazteko ez daudenez, Lehendakariak bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 18:29 orduetan, goiburuan zehaztutako tokian eta datan.